

ESKORIATZAKO UDALA

Iragarkia

2014ko apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2014n egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarri horien gaineko iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2014ko apirilaren 23an, eta jendaurrean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, hartutako erabakiaren arabera oinarri horiek behin betikotzat jotzen dira beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Era berean, 2014ko ekainaren 10an Alkatearen erabakiz diru laguntza horietarako deialdia egiten da.

Eskoriatza, 2014ko ekainaren 10a.—Alkatea. (5619)

Eskoriatzako talde eta elkarteei 2014. urtean garatuko dituzten kultur jarduera eta ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak.

1. Helburua.

Oinarri hauen helburua da Eskoriatzako irabazi-asmorik gabeko talde eta elkarteei 2014an garatuko dituzten kultur jarduera eta ekintzetarako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea. Jarduera horiek Udaleko Kultura batzordeak dituen helburuekin bat etorriko dira; hau da, udalerrian kalitatezko kultura jarduerak eskaintzea eta Eskoriatzako herritarren eta gainerako kultura elkarten arteko lankidetzak bultzatzea.

Diruz lagundutako jarduerekin lotura eduki eta oinarri hauetan zehazten den epean egiten diren gastuek eskuratu ahalko dituzte laguntzak, betiere, herritar guztiei zuzenduta badaude eta Eskoriatzan bertan burutzen badira; esaterako, kultur jarduerak sortzera, ekoiztera, sustatzera zein zabaltzera bideratutako jarduera edo programak, argitalpenak, edo kultur erakundeek hainbat diziplinan -dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak -aurkeztutako ekintzak.

Diru-laguntza banaketa honetatik kanpo geratuko dira alde batetik elkarte edo talde eskatzaileek zuzenean antolatzen ez dituzten jarduerak edo egitasmoak, eta bestetik bazkideendako soilik antolatzen direnak.

2. Eskaerak.

Eskaera egiteko, oinarri hauen eranskinean jasotako eskaera orria behar bezala beteta eta diru-laguntza eskatzeko ahalmena duenak sinatuta aurkeztu beharko da, ondorengo dokumentazioarekin batera:

a) Elkarteak Elkarten Erregistroan irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria eta elkartearen estatutuak.

Taldea inskribatu gabe badago, taldearen curriculuma aurkeztuko da: helburuak, giza baliabideak eta baliabide materialak, egoitza eta orain arte egindako jarduerak. Halaber, taldearen arduradunaren edo lehendakariaren NANaren fotokopia aurkeztuko da.

b) 2014rako aurkeztu den jarduera programa eta horren gastu eta sarrerak jasotzen dituen aurrekontua. Sarrerak atalean zenbateko diru-laguntza eskatzen den zehaztu beharko da.

AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

Anuncio

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de 10 de abril de 2014, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las BASES para la concesión de subvenciones para agrupaciones y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante el 2014.

Publicadas dichas bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 23 de abril de 2014 y pasado el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, por lo que de conformidad al acuerdo adoptado se entienden dichas bases aprobadas definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

A su vez, por acuerdo de esta Alcaldía de fecha 10 de junio de 2014 dichas ayudas quedan convocadas.

Eskoriatza, a 10 de junio de 2014.—El alcalde. (5619)

Bases para la concesión de subvenciones del ámbito cultural a las agrupaciones y asociaciones sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante el 2014.

1. Objeto.

Es objeto de estas bases la regulación de las condiciones para la concesión de subvenciones a las agrupaciones y asociaciones sin ánimo de lucro para que lleven a cabo las actividades y actuaciones programadas para el 2014 en Eskoriatza. Dichas actividades coincidirán con los objetivos de la comisión municipal de Cultura, esto es, ofrecer actividades culturales de calidad en el municipio e impulsar la colaboración entre los habitantes y demás asociaciones culturales del municipio.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases, como: programas o actividades orientadas a la creación, producción, promoción y difusión de actividades culturales, publicaciones o festejos presentados por entidades sin ánimo de lucro en las disciplinas de la danza, teatro, folklore, artes plásticas, audiovisuales, etc dirigidas a la población en general. Las actividades objeto de la subvención se deben realizar en el municipio de Eskoriatza.

Quedan excluidas de estas subvenciones aquellas actividades o proyectos que sean susceptibles de ser subvencionadas a través de otras áreas del ayuntamiento, o cuya participación se restrinja a los socios de un grupo o asociación.

2. Solicitudes.

Para solicitar las subvenciones se deberá cumplimentar debidamente el impreso que aparece en el anexo de estas bases y entregarlo, una vez firmado por la persona facultada, para solicitar la subvención. Junto con el impreso de solicitud se deberá presentar también la siguiente documentación:

a) Documento que justifique que la asociación se halla inscrita en el registro de asociaciones como entidad sin ánimo de lucro, y sus estatutos.

Si la agrupación no estuviese inscrita en el registro, ésta deberá presentar su currículum: fines, recursos humanos y materiales, sede y actividades realizadas hasta la actualidad. También deberá presentar una fotocopia del DNI del responsable o presidente de la agrupación.

b) El programa o actividad que se presenta para el 2014 y el presupuesto que recoja los ingresos y gastos previstos de dicha programación. En el apartado de ingresos se debe precisar el importe de subvención que se solicita.

Garrantzitsua: programa zabal baten barruan jarduera zehatz baterako edo hainbatetarako diru laguntza eskatuz gero, argi eta garbi adierazi beharko da hori eskabidean.

c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Eskoriatzako Udalarekiko ordainketetan egunean egotearen zinpeko aitortpena.

d) Beste erakunde eta organismo batzuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik jasotako diru-laguntzen gaineko zinpeko aitortpena.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri haue-tan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

3. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:30era, aurkeztu ahal izango dira, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean. Eskaerak aurkezteko epea larunbat edo jaiegunean amaituko balitz, epea ondorengo laneguneko 13:30ean bukatzen dela ulertuko da. Larunbata bada hurrengo lanegunean izango.

4. *Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.*

Arlo bakoitza puntuazio honen arabera baloratuko da:

1. Proposatutako programaren ezaugarriak. Gehienez 30 puntu, alderdi hauen arabera:

1.1. Aurkeztutako programak kultura arloari zein ekarpen egiten dion. 10 puntu.

1.2. Proposatutako antzeko jarduerarik ez egotea. 20 puntu.

2. Aurkeztutako aurrekontua. Gehienez 20 puntu, alderdi hauen arabera:

2.1. Jarduera bideratzeak elkarteari eskatzen dion ahalegina, giza baliabide eta diru-iturrien aldetik. Hau da, elkartearen finantza-baliabideak eta eskatutakoaren eta bere baliabideen arteko proportzioa.

2.2. Jarduerak sortutako diru-sarrerak.

3. *Erakunde eskatzailearen ezaugarriak. Gehienez 20 puntu.*

Elkarteak udalerriko jarduera nagusietan parte-hartzea (jaiak, kultur ekitaldiak, erakundeen ekitaldiak).

4. *Euskararen normalizazioan elkarteak egiten duen ekarpena.*

Gehienez 30 puntu.

5. *Diru laguntza emateko prozedura.*

Diru laguntza nori eman lehiaketa bidez erabakiko da. Diru-laguntzak oroharreko prezioan emango dira, betiere diruz lagundutako jardueraren azken kostea eskarian aurkeztutako aurrekontuaren % 20 baino gehiago ez bada.

6. *Organo eskudunak eta erabakia.*

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udaleko Kultura batzorde informatzaileak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea egongo da hura aurkezteko.

Importante: En caso de solicitar subvención para una o varias actividades concretas dentro de un programa más amplio, esto se debe expresar claramente en la solicitud.

c) Declaración jurada de estar al corriente en los pagos de la Seguridad Social, de la Hacienda Foral y del Ayuntamiento de Eskoriatza.

d) Declaración jurada en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otras entidades u organismos, o aquellas subvenciones que ya le han sido otorgadas.

La presentación de la solicitud implica que el solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.

No se aceptará otro tipo de documentación.

3. *Plazo para la presentación de solicitudes.*

Las solicitudes se podrán presentar de 9:00 a 14:30 horas, de lunes a viernes, en el plazo de 30 días contados a partir de la publicación de las presentes bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Si el plazo finalizase en sábado se entenderá prorrogado este plazo hasta las 14:30 horas del siguiente día hábil.

4. *Criterios de evaluación de las solicitudes.*

Cada concepto se valorará de acuerdo a la siguiente puntuación:

1. Características del programa propuesto. Hasta 30 puntos. Según los siguientes aspectos:

1.1. Las aportaciones del programa presentado al área de cultura. 10 puntos.

1.2. La inexistencia de actividades similares a las propuestas. 20 puntos.

2. El presupuesto presentado, hasta 20 puntos, según los siguientes aspectos.

2.1. El esfuerzo tanto económico como humano que supone para la asociación llevar a cabo el programa, esto es, los recursos financieros de la asociación y la proporción de lo solicitado con relación a sus propios medios,

2.2. El nivel de ingresos generados por la actividad.

3. *Características de la entidad solicitante. Hasta 20 puntos.*

La participación de la asociación en las principales actividades del municipio (fiestas, actos culturales e institucionales).

4. *Aportación de la asociación en el proceso de normalización del euskara.*

Hasta 30 puntos.

5. *Procedimiento de concesión.*

El procedimiento de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva. Las subvenciones se concederán a tanto alzado, siempre que el coste final de la actividad subvencionada no difiera en más de un 20% del presupuesto inicialmente presentado en la solicitud.

6. *Organos competentes y resolución.*

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán estudiadas por la comisión informativa de Cultura y en el caso de que faltase algún documento se concederá un plazo de 10 días para su subsanación.

Epe hori bukatu eta falta diren agiriak aurkeztu ez badira, diru-laguntza eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Instruktorea Kultura batzordeburua izango da. Horrek kultura teknikariaren txostena aztertu eta batzordearen iritzia entzun ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo dio alkateari, dagokion erabakia har dezan.

Erabakia eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da.

Bi hilabeteko epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gaineko erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

7. *Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunaren betebeharrak dira:

a) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak egitea eta helburuak betetzea.

b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Eskoriatzako Udalaren aurrean justifikatzea.

c) Udalak egin beharreko ikuskapenak onartzea.

d) Eskoriatzako Udalari berak lagundutako jarduera bererengatik jaso den beste diru-laguntzen berri ematea.

Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hori eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.

e) Diruz lagundutako jardueraren informazio, publizitate eta propaganda guztietan Eskoriatzako Udalaren lankidetzaz agerraraziko da.

f) Euskararen erabilerako irizpide hauek betetzea:

f.1) Ekintza subentzionatueta argitaratzen diren idatzizko testuak euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak erabiliz gero, euskarari emango zaio beti lehentasuna, testuaren kokapenaren bidez (euskarazkoa gainean eta gaztelarazkoa azpian) nahiz letra tamainaren bidez (euskarazko testua handiago).

f.2) Ahozko adierazpenak euskara hutsean egingo dira ahal den guztietan. Bi hizkuntza ofizialak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emateko, euskarazko mezua emango da lehendabizi, eta gero gaztelarazkoa.

f.3) 16 urtetik beherakoei zuzendutako ekintza eta testu guztiak (hitzaldiak, idatziak,) euskaraz izan behar dira salbuespenak salbuespen.

f.4) Nolanahi ere, Udal Euskara zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

8. *Diru-laguntza ordaintzeko modua.*

Onartutako diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egin ahal izango da.

Alkateak diru-laguntza onartzen duenetik kontatzen hasita, hilabeteko epean diru-laguntzaren %60 ordainduko da.

Finalizado dicho plazo sin haberse presentado la documentación requerida, se entenderá que se desiste en la solicitud de subvención.

El órgano instructor será el presidente de la Comisión de Cultura, quien a la vista del informe realizado por la técnico de Cultura y el acuerdo de los miembros de la Comisión, formulará la propuesta de resolución definitiva al Alcalde para que este adopte la resolución oportuna.

La resolución será emitida en el plazo máximo de dos meses contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.

7. *Obligaciones del beneficiario.*

Las obligaciones del beneficiario son las siguientes:

a) Realizar las actividades y/o cumplir los fines que fundamentan la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Eskoriatza el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos para la concesión y uso de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a realizar por el Ayuntamiento.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Eskoriatza cualquier otra subvención que haya sido otorgada a la asociación para la misma actividad que ahora se subvenciona.

Esta comunicación se deberá realizar nada más se tenga conocimiento de ello y, siempre, antes de justificar la utilización de fondos recibidos del Ayuntamiento.

e) Deberá hacerse constar en todas las acciones de información, publicidad y propaganda de las actividades subvencionadas la colaboración del Ayuntamiento de Eskoriatza.

f) Respetar los siguientes criterios relativos al uso del euskara:

f.1) Toda documentación o escrito que sea objeto de publicidad deberá estar redactado en euskara o en las dos lenguas oficiales. Cuando se opte por las dos lenguas, se dará prioridad al euskara tanto en su ubicación (situando el texto en euskara en la parte superior) como en el tamaño de los caracteres (letra más grande en euskara).

f.2) En la comunicación hablada se tenderá a utilizar únicamente el euskara. En caso de que se utilicen las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskara emitiendo el mensaje en esa lengua antes que en castellano.

f.3) Las actividades y mensajes (charlas, escritos, etc) dirigidos a menores de 16 años deberán ser en euskara, salvo excepciones.

f.4) En cualquier caso, para garantizar la corrección lingüística de los textos en euskara, se podrá solicitar la ayuda del Servicio Municipal de Euskara.

8. *Forma de pago de la subvención.*

La subvención concedida podrá ser abonada en dos plazos.

Se abonará el 60% en el plazo de un mes contado a partir de la aprobación por parte del Alcalde de la concesión de la subvención.

Diru-laguntzaren beste zatia (%40) jasotzeko ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira, 2014ko abenduaren 15ko 13:00ak baino lehen, Eskoriatzako Udaleko sarrera erregistro orokorrean:

1. Diruz lagundutako ekintzen memoria.
2. Jarduera guztien zerrenda, eta bakoitza zein hizkuntzatan burutu den.
3. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
4. Izandako gastuen faktura originalak edo kopia konpulsatuak, eta diruz lagundutakoaren gastu guztiak hartzen dituen ordainketa-agiriak edo legezko balioa duen beste edozein agiri.
5. Emaizta ekonomikoen memoria eta balantze errealak.

Elkarteak, aintzat hartzeko moduko arrazoirik aurkezten ez badu, edo ez baditu programatutako jarduerak edo oinarri haue-tan zehaztutako betebeharrak betetzen, zati batean bada ere, Udalak jasotzeko geratzen zaion diru-laguntza edo horren zati bat ez ordaintzea erabaki ahal izango du, eta baita jadanik kobratuta duen dirua (guztia edo zati bat) itzularaztea ere.

Erabaki hau hartu aurretik interesatuari entzungo zaio.

9. *Diru-laguntzen konkurrentzia.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berarengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

10. *Diru-laguntza aldatzea.*

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, beti ere, laguntza honekin batera beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntzak aldatzen badira, emakidaren erabakia aldatzea gerta daiteke.

11. *Diru-laguntza ezeztatzea.*

Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izanak diru-laguntza berrikustea ekarriko du eta, dagokionean, diru-laguntza ezeztatzea.

12. *Interpretazioa.*

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Kultura batzordeburuak erabakiko ditu.

13. *Aurrekontua eta partida.*

Deialdi honen helburuak betetzeko 1.000 euroko diru kopurua emango da 1.0401.481.451.10.01 partidaren kontura.

Para el cobro del resto de la subvención (40%) se deberá presentar los siguientes documentos en el Registro General del Ayuntamiento de Eskoriatza, antes de las 13:00 horas del 15 de diciembre de 2014.

1. Memoria del programa objeto de subvención.
2. Relación de todas las actividades, idioma en que se han efectuado.
3. Documentación gráfica sobre las actividades programadas (carteles, folletos, libretos, material escrito distribuido, notas de prensa, etc.).
4. Facturas originales justificativas o copias compulsadas, documentos de pago o cualquier otro documento con validez jurídica por el total del gasto objeto de subvención.
5. Memoria de los resultados económicos y balances reales.

Si la asociación, sin tener ninguna causa justificada, no cumplierse las actividades programadas o las obligaciones establecidas en estas bases, sea total o parcialmente, el Ayuntamiento podrá acordar no abonarle la parte de subvención pendiente por cobrar, incluso obligarle a devolver el importe total o parcial ya cobrado.

Antes de adoptar esta resolución se concederá audiencia al interesado.

9. *Concurrencia de las subvenciones.*

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

Sin embargo, el importe de la subvención no podrá ser, por sí sola o junto con otras subvenciones, nunca superior al costo de la actividad subvencionada.

10. *Modificación de la subvención.*

La modificación de las condiciones tenidas en cuenta al otorgar la subvención, así como las ayudas económicas recibidas por otras entidades con el mismo fin, podrán conllevar una modificación en el acuerdo de concesión de la subvención.

11. *Anulación o revocación de la subvención.*

Será motivo de revisión y, en su caso, de anulación de la subvención concedida el haberla recibido sin cumplir las condiciones requeridas para ello.

12. *Interpretación.*

Cualquier duda surgida en la interpretación y desarrollo de estas bases será resuelta por el presidente de la Comisión de Cultura.

13. *Presupuesto y partida.*

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones es de 1.000€ imputables a la partida 0401.481.451.10.01.